

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AMURRIOKO UDALA

#### Behin betiko onartzea "Oporretan ere Euskaraz" zerbitzuaren tasa arautzen duen 7.19 eranskinaren aldaketa

Udalbatzak, 2014ko apirilaren 10eko osoko bilkuran, hasierako onarpena eman zion "Oporretan ere Euskaraz" zerbitzuaren tasa arautzen duen 7.19 eranskinaren aldaketari (espedientea: 1140151401). Hasierako onarpenari buruzko erabaki hori 2014ko apirilaren 23ko ALHAOn (45. zk.) argitaratu zen. Erabaki horren aurkako erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak, toki ogasunak arautzen dituen legearen testu bateratua onartzen duenak, 17.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, erabaki hori behin betiko onartu eta argitaratu egiten da, halaxe xedatzen baitute apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 70.2 artikuluan eta 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak 17.4 artikuluan. Aldatu den zerga ordenantza horrek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra. Hona hemen hitzez hitz dioena:

#### 7.19 eranskina. "Oporretan ere Euskaraz" programako zerbitzuaren tasa

##### 1. artikulua. Lege oinarria

Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak, toki ogasunak arautzen dituen legearen testu bateratua onartzen duenak, 20. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, "Oporretan ere Euskaraz" programako zerbitzuaren tasa ezarri da.

##### 2. artikulua. Subjektu pasiboa

"Oporretan ere Euskaraz 2014" programako zerbitzuaren tasa ordaindu behar dute Amurrioko Udalak antolatzen duen programa horretan izena ematen duten pertsona fisikoek.

##### 3. artikulua. Tarifa

1. Programako ikastaro bakoitzaren zenbatekoak Amurrioko Udalak horretarako irekita duen banku kontuan sartu behar dira, programa bakoitza hasi aurretik.

2. Tasak, oso-osorik, programa bakoitza hasi aurretik sortuko dira, aparte utzita ikaslea zenbat egunetan joaten den ikasturtean zehar. Hona hemen ordaindu beharreko tasak:

2.1. Amurrion erroldatutako eskola umeen tasa: 54,38 euro.

2.2. Amurrion erroldatutako eskola umeen tasa, familia unitateko kide batek baino gehiagok programan izena eman duenean: 48,94 euro.

2.3. Amurrion erroldatuta ez dauden eskola umeen tasa: 108,76 euro.

2.4. Amurrion erroldatuta ez dauden eskola umeen tasa, familia unitateko kide batek baino gehiagok programan izena eman duenean: 103,32 euro.

2.5. Tarifak urtero eguneratuko dira, eta urte natural bakoitzeko urtarrilaren 1etik aurrera izango dituzte ondorioak. Eguneraketa hori egiteko, aurreko urteko abenduaren 31n EAEk zuen KPI aplikatuko da, zeina Estatistikako Institutu Nazionalak argitaratzen baitu.

##### 4. artikulua. Izena ematea

Programan parte hartzeko interesa dutenek idatziz aurkeztu behar dute ikastaroan izena emateko eskaera; benetan ikastarora joan zein ez, tasak sortu egingo dira.

**5. artikulua. Hobariak**

Udalerrian erroldatutako eskola umetzat joko dira ikastaroa hasten den egunean familia unitateko kide guztiak Amurrioko udalerrian erroldatuta badaude.

**6. artikulua. Ezordaintzeak.**

Tasa horien zorrak premiamendu bidez eskatu ahal izango dira.

**AZKEN XEDAPENA**

“Oporretan ere Euskaraz” programako zerbitzuaren tasa arautzen duen 7.19 eranskina AL-HAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean, eta indarrean izango da harik eta aldatu edo indargabetzen den arte.

Amurrio, 2014ko ekainaren 2a

*Alkatea*

*M. JOSUNE IRABIEN MARIGORTA*